

KONTROL MOZIOA

Kaleko merkataritzako hizkuntza-irizpideak direla-eta

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Gune Publikoetako eta Festa Jardueretako zinegotzi ordezkari Afonso Gurpegui Ruiz jaunari zuzenduriko interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urriaren 9tik 12ra, Donostiako erdiguneko kaleetan “Feria Medieval” izenaz kaleko merkataritza egitasmo bat egin zen. Egitasmo horren ondotik kexa franko jaso izan dira, euskararen presentziarik ez zegoelako batetik, hala nola tokiko merkataritzaren parte hartzerik ere ez zelako bertan ziurtatu, eta beste arrazoen artean, aipaturiko “Feria Medieval” deritzonaren propaganda euskarriak komertzio txikien alboan jarriak izan zirelako asko, eta horiek merkataritza txikien kexak baino ez zituztelako eragin.

Egoera hau ikusirik, zinegotzi honek izenpeturiko interpelazioaren ondotik, Alfonso Gurpegui jaunak egoera horiek zuzenduko zituztela eman zuen aditzera, nahiz eta zehaztaperen falta ere nabaria izan zen horiek nola zuzendu eta hizkuntza eskubidea eta irizpideak Udal Gobernu honek nola bermatuko dituen zehazteko ustean.

Ahozko konpromiso hori balekotzat har daitekeen arren, zehaztasun falta ageriko horren ondotik gaur gaurkoz egoera hori berriz errepika ez dadin inolako bermerik ez denez ezarri, haxe behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kaleko merkataritza egitasmo orotan euskararen erabilpena bermatua izatea, tokiko mertakarien eta ekoizleen presentzia beti bermatua izatea, eta egitasmo horien propagandarako euskarriak kokatzeko irizpideak ere Udal Gobernuak ezar ditzala, inoiz ere bertako merkatarientzat kalterik suposatuz gabe.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin
EHBildu udal taldeko zinegotzia